



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.04.28an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
ARITZ MURUA ACHA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

Inor ere ez

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrean ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituena, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egiten da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz, 2020ko apirilaren 28an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, eta goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2019ko likidazioaren berri ematea

Kontu-hartzaileak 2019ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du. Hona hemen likidazioaren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:		3.049.079,57
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		685.634,26
Aurrekontuko zordunak :	584.094,01	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	101.540,25	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		319.947,53
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	319.947,53	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		3.414.766,30
5.- Saldo kobragaitzak:		2.918,87
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua (Epeleko funtsa):		1.700.866,22
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.710.981,21



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	799.154,56
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-74.722,92
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	572.943,64
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	18.551,74
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.278.823,54

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.139.497,82
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	461.128,16
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.600.625,98

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

2.2.- 2020an txertatu beharreko kredituen espedientea

Kontu-hartzaileak, 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren onespeneraren ondoren, lehendakaritzaren ebazpen bitartez onartutako 2020ko aurrekontuko kreditu txertaketa espedientearen berri eman du. Hona hemen laburpena:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
1	PERTSONAL GASTUAK	1.462,14
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.098.004,52
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	110.803,49
6	INBERTSIO ERREALAK	39.582,90
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		1.249.853,05

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.249.853,05
FINANTZAKETA GUZTIRA		1.249.853,05



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.3.- Prezio publikoak egokitzea

Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, eta bere proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Edukiontzien pedalak saltzeko ondorengo prezio publikoak onartzea:
 - 240 litroko edukiontzien pedalak: 38,37 €.
 - 120 litroko edukiontzien pedalak: 33,97 €.

3.- INGURUMENA

3.1.- Erabilitako sukalde olio biltzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea

Bide publikoko edukiontzietan zein garbiguneetan utzitako sukaldeko olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.2.- Plastikoa hondakinak kudeatzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko uztailaren 27an sinatu zuen Mankomunitateak BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin Garbiguneetan eta Mankomunitateko beste zerbitzu batzuetan jasotako plastikoa hondakinak kudeatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bere iraupena bi urtekoa dela, sinatzen denetik aurrera, eta beste bi urtez luzatu ahal izango dela.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua arabera, luzapen hau nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bazaio.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Zerbitzuaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste bi urtez luzatzea, hau da, 2022ko uztailaren 26ra arte.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- 2019ko Enplegu Plana garatzeko Udalekin hitzarmenak

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2019-20ko Enplegu Planaren barnean, Mankomunitateak, udalekin adostuta, egindako diru-laguntza eskaera (330.643,27) onartu zuen eta ondorioz udalek onartutako kontratuak 2019a bukatu aurretik egin behar izan zituzten. Egindako kontratuek Lanbidek ezarritako baldintzak bete behar zituzten. Mankomunitateak, aipatutako kontratuen kosteak finantzatzeko, Lanbidek aurreratutako laguntzaren %55a ordaindu zien Udalei 2019ko urrian.

Egindako ordainketaren aurrerapena eta uztailan egingo den diru-laguntzaren likidazioa bideratzeko Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordeak Mankomunitatea eta udalen arteko hitzarmenak sinatzea proposatzen du.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitateko Udalekin, Leintz-Gatzagako Udala izan ezik, lankidetzak hitzarmenak sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.-ko Udalak langabetu kontratatuko ditu. Langabetu horiek kontratatuzeko, udalak egin beharreko lan eskaintzak Arrasateko Lanbideko bulegoan aurkeztuko ditu. Udalak, Lanbidek eskaintzan parte hartzeko nahia azaldu eta baldintzak betetzen dituzten langabetuen artean, hautaketa prozesua burutuko du. Programaren bukaeran eta Mankomunitateak deskargua egin ahal izateko, dagokion lan eskaintzaren eta zerbitzuetako eskaintzen erregistro zenbakiez gain udalak langileen kontratuak, nominak eta TC1 eta TC2ko kopiak edo kosteak jasoko duen idazkaritzak egindako ziurtagiria emango dio Mankomunitateari.

BIGARRENA.-ko udalak egingo dituen kontratuek, Lanbidek ezarritako betebeharrak orokorrez gain, honako baldintzak beteko dituzte:

-

HIRUGARRENA.- Mankomunitateak Lanbidetik jasotako diru-laguntzatikeuro ordainduko dioko Udalari, %55a kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %45a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen duenean, beti ere, Mankomunitateak diru-laguntzak jaso eta gero.”

- Mankomunitateak Udal bakoitzari ordainduko dion zenbatekoa honako hau izango da:
 - Antzuola: 17.235,54 €.
 - Aretxabaleta: 25.000 €.
 - Arrasate: 121.497,32 €.
 - Bergara: 70.856,85 €.
 - Elgeta: 12.500 €.
 - Eskoriatza: 26.914,36 €.
 - Oñati: 45.959,42 €.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Udal bakoitzak egin beharreko kontratuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Antzuola: 2 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 Emakumezkoa
 - Aretxabaleta: 2 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - Arrasate: 11 kontratu
 - 3 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - 4 Emakumezkoak
 - 3 Baldintza orokorrak
 - Bergara: 6 kontratu
 - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - 2 Emakumezkoak
 - 1 Baldintza orokorrak
 - Elgeta: kontratu 1
 - 1 Emakumezkoa
 - Eskoriatza: 3 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - 1 Emakumezkoa
 - Oñati: 6 kontratu
 - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 3 Emakumezkoak
 - 1 55 urtetik gorakoa

4.2.- Eskualdeko Energia Mahaia osatzeko ordezkarien izendapenak

Mankomunitateak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin Debagoieneko Energia Plana bultzatzea hitzartu zuen. Hitzarmen horren babesean, besteak beste, "Debagoieneko Energia Plana" idatzi da eta energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarriak areagotzeko helburuarekin zenbait ekintza burutu dira. Aurtan, berriz ere, hitzarmen berri bat sinatuko da eta horren babesean garatuko diren ekimenak eta hurrengo urteetarako diseinatuko diren ekintzak garatzeko "Eskualdeko Energia Mahaia" osatu behar da.

Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- "Eskualdeko Energia Mahaia" osatzeko Mankomunitatea osatzen duten udal ezberdinek gehienez bi ordezkari izendatzea mahai horretan parte hartzeko. Ordezkariak teknikoak (ingurumen teknikariak ahal izanez gero) zein politikariak izango dira.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.3.- HAZILAN proiektuaren AKTIBATU faseko prestakuntza ekintzak garatzeko INNOBIDE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2019ko ekainaren 17an sinatu zuen Mankomunitateak INNOBIDE, S.L. enpresarekin HAZILAN proiektuaren AKTIBATU fasean prestakuntza ekintzak garatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bere iraupena urtebetekoa dela, sinatzen denetik aurrera, eta urtero luzatu ahal izango dela, gehienez ere hiru urtez, hasierako epea barne; alegia, 2020. eta 2021. urteei dagozkien prestakuntza ikastaroak garatu eta emateko.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua araber, luzapen hau nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bazaio.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko ekainaren 16ra arte, 2020. urteari dagozkion prestakuntza ekintzak garatu eta emateko.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/15.- 1.- ASIER ETXANIZ EIZAGIRRE eta OLATZ IZAGIRRE ALDAZABAL izendatzea Debagoieneko Mankomunitateko praktiketako funtzionario, informatzaile-teknikari lanpostuan; bi lanpostu hauek A2 sailkapen taldekoak dira eta Administrazio Bereziko Eskalan eta Zerbitzu Berezien Azpieskalan sartzen dira.

2.- ASIER ETXANIZ EIZAGIRREk 2020ko martxoaren 1ean hasiko du bere sei hilabeteko prestakuntza eta praktika-aldia.

3.- OLATZ IZAGIRRE ALDAZABALek, berriz, 2020ko maiatzaren 11n hasiko du bere prestakuntza eta praktika-aldia, orduan bukatzen baita bere amatasunagatiko lizentzia.

20/16.- **Lehenengoa.-** Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	50.000,00	39.000,00	11.000,00
GUZTIRA		50.000,00	39.000,00	11.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	60.000,00	39.000,00	99.000,00
GUZTIRA		60.000,00	39.000,00	99.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

20/17.- 20/07 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HOGEITA BAT MILA ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (221.051,19€).

20/18.- 20/08 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (431.852,64€).

20/19.- Lehena.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:	3.049.079,57
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:	685.634,26
Aurrekontuko zordunak :	584.094,01
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	101.540,25
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:	319.947,53
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	319.947,53
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):	3.414.766,30
5.- Saldo kobragaitzak:	2.918,87
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua (Epeleko funtsa):	1.700.866,22
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	1.710.981,21

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	799.154,56
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-74.722,92
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	572.943,64
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	18.551,74
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.278.823,54

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.139.497,82
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	461.128,16
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.600.625,98

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Gobernu juntari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

20/20.- Oihana Agirre teknikaria beste urtebeterako izendatzea apirilaren 9tik aurrera, hau da, 2021eko apirilaren 8ra arte, aipatu proiektuak garatu eta kudeatzeko, orain arteko baldintza berdinetan.

20/21.- 20/09 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (23.979,96€).

20/22.- EMAUS GIPUZKOA, S.L. enpresak aurkeztutako eskaera onartzea eta aipatutako ehunkien bilketa kontratua etetea. Etendura hau eragin duten inguruabarrak



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

edo neurriak amaitu ondoren, Mankomunitateak kontratistari etenduraren amaiera jakinarazten dionean berriro hasiko da.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean dauden kontratu honetako langileei dagokienez, egoera bereziki ahulean dauden langileak direla kontuan hartuta, enpresa horrek bere ordainsariaren % 100era arte osatzea eskatzen da, eta gero Mankomunitateak konpentsatuko dio enpresari benetan ordaindutako zenbatekoa.

20/23.- 20/10 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BERROGEITA SEI MILA BERREHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (146.205,78 €).

20/24.- HEMEN GARBIKETAK, S.L.U. enpresak aurkeztutako eskaera onartzea eta Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko kontratuaren etendura partziala onartzea. Etendura hau eragin duten inguruabarrak edo neurriak amaitu ondoren, Mankomunitateak kontratistari etenduraren amaiera jakinarazten dionean berriro hasiko da.

20/25.- 1.- Etxeko hondakinen bilketa zerbitzua emateko DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin daukagun kontratua aldatzea, martxoaren 30etik aurrera, Oñatiko atez-ateko ontziak eta esekitokiak desinfektatzeko zerbitzua egiteko.

Oñatiko atez-ateko ontziak eta orokorrean esekitoki puntu osoa desinfektatzeko zerbitzu berri hau asteleheneretik igandera gaueko 22:00-3:30ak aldera artekoa izango da, hau da 5:30 orduko zerbitzua. Zerbitzu hau peoi-gidari batek egingo du, puntuz puntu mugitzeko furgoi motako ibilgailu bat erabiliz. Zerbitzu honen iraupena COVID19-ak eragindako alarma egoerarekin zuzenean erlazionatua dagoenez, aurrez ezinezkoa da zehaztea eta, ondorioz, zerbitzu honen eguneko kostua zehaztu da. Honako hau da:

Izena	Kontzeptua	Uds.	Orduak/ jardn.	Prezioa/o rduko (€)	Prezioa (€)	%4 BI
Oñatiko ontzien eta esekitokien desinfekzioa	Peoi-gidaria gauez	1	5,50	26,34 €	144,85 €	150,65 €
	Peoi-gidaria gauez_jaieguna	1	5,50	29,03 €	159,65 €	166,04 €
	Furgoi motako ibilgailua	1	5,50	3,45 €	18,99 €	19,75 €

GUZTIRA LANEGUNeko 163,85 € **170,40 €**

GUZTIRA JAIEGUNeko 178,65 € **185,79 €**



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Aldaketa hau eragin duten inguruabarrak edo neurriak amaitu ondoren, Mankomunitateak kontratistari aldaketaren amaiera jakinarazten dionean bukatuko da.

20/26.- Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako eta Arrasateko San Balerio garajeko isurketa uren laginak jaso, landako neurketak egin eta laborategiko analisiak egiteko URIKER, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko martxoaren 31ra arte.

20/27.- 20/11 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZORTZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMO (358.264,11 €).

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkotzat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Arropa eta beste objektu berrerabilgarri txikiak biltzeko eta kudeatzeko kontratuaren etenduraren amaiera

2018ko martxoaren 19an, Mankomunitateak EMAUS GIPUZKOA, S.L. enpresarekin kontratu bat sinatu zuen ondorengo zerbitzuak emateko:

- Kaleko edukiontzietan zein Garbiguneetan utzitako erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak jasotzea.
- Jasotako materialak plantara garraiatzea, motaren eta egoeraren arabera sailkatzea, egiaztatzea, garbitzea edo behar izanez gero konpontzea, eta doan banatzea edo saltzea, objektuak bestelako aurretiazko eraldaketarik egin gabe berrerabili ahal izateko. Halaber, jasotako materialen artean berrerabili ezin diren hondakinak ere kudeatzea.
- Klean kokatutako edukiontzia garbitu eta mantentzea.

2020ko martxoaren 23an, COVID19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera zela eta, EMAUS GIPUZKOA, S.L. enpresak, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuak bere 34. artikuluan dionaren arabera, aipatu kontratuaren behin behineko etetea eskatu zuen ondorengo arrazoiak zirela eta:

“Ezinezkoa da bermatzea edukiontzietan utzitako ehun-hondakina ez datorrela COVID19 birusarekin kutsatutako etxeetatik, eta horrek edukiontzian utzitako gainerako ehun-hondakinak eta aparatu txikia kutsa litzakeela, bai eta hura manipulatzeko dutenak ere, bai bilketa-prozesuan, bai ondoren bereizi eta tratatzean.”

Eskaera hau aztertu, eta kontuan hartuta zerbitzu hau ez zela ezinbestekoa, behin behinerako etetea posible zela, eta langileen eta herritarren segurtasuna bermatzeko helburuarekin, Mankomunitateko lehendakariaren presazko ebazpen baten bitartez, honako hau erabaki zen : “EMAUS GIPUZKOA, S.L. enpresak aurkeztutako eskaera onartzea eta aipatutako ehunkien bilketa kontratua etetea. Etendura hau eragin duten



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

inguruabarrak edo neurriak amaitu ondoren, Mankomunitateak kontratistari etenduraren amaiera jakinarazten dionean berriro hasiko da.”

Orain, kontuan hartuta, alde batetik, Mankomunitateko herrietako osasun egoera eta, bestetik, zerbitzu honen etendurarekin denbora gehiago jarraitzeak gehi urtaro aldaketak zerbitzuan eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak (materialen pilaketak eragindako bilketa eta kudeaketa arazoak, etabar), bai kontratistak, bai Mankomunitateko Ingurumen Batzordeak uste dute kontratua lehenbailehen berriro hastea komeni dela.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Arropa eta beste objektu berrerabilgarri txikiak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko Mankomunitateak EMAUS GIPUZKOA, S.L. enpresarekin duen kontratua berriro hastea datorren astelehenetik aurrera, hau da, maiatzaren 4tik aurrera, erabaki hau lehenbailehen aipatu enpresari jakinaraziz.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Ander Garay-k eta María Ubarretxenak eskatu dute, COVID-19ak eragindako sarrera murrizketa dela eta, Udalek egin behar duten bezala, Mankomunitateak ere bere aurrekontua berrikustea, aztertzea ia nonbaitetik gastua murrizterik dagoen.

Gastua murriztea zaila ikusten den arren, Mankomunitatearen gastuaren zatirik handiena gastu finkoa baita, aztertuko da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA